

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren helburu nagusietako bat da euskararen erabilera indartzea donostiarrei euskaraz bizitzeko baldintzak eskainiz, sentsibilizazioa bultzatuz eta euskara ez dakitenak euskalduntzera erakarrit. Xede horrekin, 2020ko urriaren 13an “Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020-2024” onetsi zen. Euskalduntze-alfabetatze arloari dagokionez, helburua da euskalduntze-alfabetatze arruntera ikasleak erakartzeko ahaleginarekin batera, lehentasunezkoa izatea gizarte esparru guztietara zuzendutako ikastaro laburragoak sustatzea.

Gauzak horrela, euskaltegien jardunak duen interes publiko berezia kontuan hartuta, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak arauak zehaztu ditu euskaltegien jarduna diruz laguntzeko.

Dirulaguntza hauen bitartez, xede berezietako taldeak lagundu nahi dira, besteak beste: 16-18 urte bitarteko gazteak, langabeak, merkatari eta ostalariak, gurasoak, etorri berriak edo erretiratuak.

Horiek horrela, Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi-ordezkariek Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen dio honako erabaki hauek onar ditzala:

ERABAKIAK

1. Donostiako euskaltegi homologatuen xede berezietako taldeentzako dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea eta deialdiak egitea.
2. Dirulaguntzetarako 100.150,00 € bideratzea, eta gastua Euskara Zerbitzuko 2024ko aurrekontuaren 481.01 kontu sailari egozteak.
3. Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko onespena ematea.

Donostian, sinaduraren egunean

KULTURAKO, EUSKARAKO ETA TURISMOKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

HIRIKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO ATALAREN BURUA